



Berriz *etxebizitza*

Aldaerak: Palazioa / Markesarena
Ahozkoa: Palásixue / Markésiena



43°10'29"

2°34'39"

Berriz Iruditan / J.A. Ramos

Gaur egun jauregi hau udalerriko gobernuaren etxea dugu, eta lehenbiziko aipuak topatzeko, denboran atzera egin behar dugu Erdi Aroraino. Dena den, eta landa-erakinekin gertatu den bezala, honi buruzko aipuak Bizkaiko su-erroldetan ere agertzen dira XVIII. mendean: *Berriz* (1704, 1796) eta *Verriz* (1745).

Hortaz, kasu honetan ere aldaera gutxi ezagutu dira, horien nabarmenena izanik *B* edo *V* erabiltzea izena idazterakoan. Gero, XIX. mende erdialdetik aurrera, *Palacio* (1857, BUA, Viv eta 1866, DJE, 1/ 247. or.) moduan agertzen da

bakarrik, nahiz eta izendegian berriro ere *Verriz* (1859, BUA, Nmcr) agertu.

XX. mendean, Berrizko markesa heldu zenean, berriztarren artean *Markesarena* izenez ezagutzen hasi zen eraikin hau, ahozko formarik erabilienak *Palásixue* edo *Markésiena* izanik. XXI. mende hasieratik Udaletxe bihurtu da, eta, ondorioz, izendapen hori ere darabilte herritarrek eraikinari erreferentzia egiteko.

Udaletxe bihurtutako jauregia da. Berriz izeneko dorretxearen lekuan, XIX. mendean jauregi

toponimia

Herriari izen eman zion etxea dugu hau, denborarekin jauregia bihurtu zena. Bizkaian sarritan dugu gertaera hau eta horren ondorioz etxeak izena galdu eta Torrea, Jauregia edo, berriago den Palazio izena hartzen du. Gauzak honela etxea Berriz edo Berrizjauregi da. Esanahia iluna da. Toponimoetan ageri den -iz amaiera honek jabetza adierazten du eta gaur egun etxe izenetan erabiltzen dugun -ena-ren berdina edo antzekoa da. Beraz Berriena edo Berrena esangura du izen honek, Berri- hasiera zuen jaun baten izena alegia. Baina ez barri euskal hitza seguru asko Berrius izen latinoa baizik.



Berriz jauregia, Guregipuzkoa.net/Jardines y palacio de Aznar © CC BY-SS: Ojanguren, Indalecio.

bat eraiki zuten. Sute batek hondatu egin zuen, eta horren gainean, orain ikusten dugun eraikina jaso zuten, Jose Maria Basterra arkitektoaren planoei jarraituz. Jauregi berria 1900ean eraiki zuten, eta hura egiteko arrazoia jabeek Berrizko markesgoa ematea izan omen zen.

Bi bolumenez osatutako eraikin hau sasoian indarrean zegoen estilo eklektikoan egin zen, lorategi eder batek inguratuta. Bolumenetako batek antzinako dorretxea gogorarazten digu, eta bestea jauregi-itxurakoa da. Nabarmena da dorretxearen bertikaltasunak ondoko jauregiaren

horizontaltasunarekin mantentzen duen oreka, materialek eta koloreak ere horretara laguntzen dutelarik. Hala, lehenak Erdi Aroko dorretxeak dakarzkigu gogora, eta besteak, aldiz, jauregi barrokoak, batez ere baeen inguruko moldurengatik, arkitektura eklektikoak jarraitzen zituena postulatuen arabera.